



TEODORO HERNANDORENA IPUIN LEHIAKETA

IX. edizioan sei urtetik gorakoek izango dute parte hartzeko aukera; lanak euskaraz aurkeztu beharko dira >4

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO


hitza



Ostirala
2010-10-08

VIII. URTEA 2.094. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



'Dre' edo 'Zuhaitza' ikuskizunaren entseguko une bat. I. TERRADILLOS



A. IMAZ

IÑAKI TOLEDO PEÑA BLAUGRANA TOLOSARRA-KO PRESIDENTEA

«Barçazaleen Munduko Kongresuan ostiralean bakarrik egongo gara»

TOLOSA Mundu guztiko Barcelona FC taldeko jarraitzaileak Zerkausian elkartuko dira gaur >3

DANTZAK ETA TXOTXONGILOEK BAT EGINGO DUTE 'DRE'N

TOLOSA Norvegiar eta indiar artistek elkarlanean egin duten ikuskizuna ikusteko aukera egongo da bihar 20:00etan Topic-en >2

Garikoitz Ibarluzea Espainiaratua izango den ala ez erabakiko dute

Arrospidek etzi jokatuko du Urrezko Aizkolari Txapeldunen finala

IBARRA Abokatuak «indartsu eta ondo» ikusi du espetxean aurkitzen den ibartarra >3

LEABURU Nazabal, Larretxea eta Azpilikueta ere izango dira lehian >7

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza**
bertako egunkaria

egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Asteunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba errobidia 5 behean • 201400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31880 Leizta

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A:
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

Aberriaren 1. eta 15.19991 lege-organikoa; Datu Pertsonalak Baberako, beteki, jakinarazten ditugu zure datu pertsonalak TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.M.-ren fitxategi automatizatu batera pasatuko direla, erregistratu dituen erakundeen berri emateko. Zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezarritako eta kontratu egiteko eskubideak erabiltzeko. Hala egin nahi izanez gero, idatzi helbide honetara: TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.M.-Araba errobidia 5 behean • 201400 Tolosa, edo harpidetza ghitza@info

ERREPRESIOA GELDITU

ZUTIK TOLOSALDEA!

Ostirala 8
20.00etan Hileberriko plazatik

MANIFESTAZIOA

Kirol jarduera

Gaur, urriak 8

Areto futbola

■ Usabalgo goiko kantxan, 20:30ean, bigarren mailakoen partida: Laskorain C - Allerru.

Bihar, urriak 9

Saskibaloia

■ Usabalgo goiko kantxan, 10:00, jubenil mutilen partida: Take - Her-nani.

■ Usabalgo goiko kantxan, 12:00, kadete nesken partida: Take Aralar - Goxodenda.

■ Usabalgo beheko kantxan, 16:00, jubenil nesken partida: Aralar Take - Easo Antxeta.

Eskubaloia

■ Usabalgo goiko kantxan, 16:00etan, kadete mailakoen partida: Tolosa - Urola.

■ Usabalgo goiko kantxan, 18:00etan, senior mailakoen partida: Tolosa - Arrasate.

Futbola

■ Usabalgo futbol zelaian, infantil ohorezko mailakoen partida, 09:30ean: Tolosa CF - Euskalduna.

■ Usabalgo futbol zelaian, emakumezko kadete F-11 partida, 11:00etan: Tolosa CF - Urnieta.

■ Usabalgo futbol zelaian, 15:30, preferente mailako partida: Tolosa CF - Urola.

■ Usabalgo futbol zelaian, 17:00etan, jubenil lehenengo mailako partida: Tolosa CF - Mundarro.

■ Berazubiko futbol zelaian, 16:30ean, erregional ohorezko mailakoen partida: Tolosa CF - Aretxabaleta.

Asteartea, urriak 12

Krosa

■ San Esteban auzoan, 11:00etan hasita, Tolosako XXIII. Herri Krosa.

Dantza eta txotxongiloak uztartzen dituen ikuskizuna bihar, Topic-en

Kultura » Norvegiar eta indiar artistek elkarlanean burutu duten 'Dre' ikuskizuna izango da ikusgai 20:00etan.

IÑIGO TERRADILLOS

Dantza garaikidea eta txotxongiloen antzezlanak uztartzen dituen ikuskizun bereziaz gozatzeko aukera izango da Topic Txotxongiloen Nazioarteko Zentroan, bihar 20:00etan. Damini House of Culture konpainiak Sudesh Adhana dantzari eta koreografoarekin elkarlanean *Dre* (Zuhaitza) lana aurkeztuko du. Biharko emanaldia lan honen aurrestreinaldia izango da, izan ere, estreinaldi ofiziala hilaren 12an eta 13an egingo dute Osloko Nacional Opera and Balletean.

Mahabharata ikuskizunaren bigarren zatia da *Dre*. Lehenengo zatia Osloko antzerkian eskaini zuten 2008an arrakasta handiarekin. Norvegia eta Indiako artistek hartzen dute parte, Damini House of Culture konpainiarekin eta Sudesh Adhanarekin batera ariko diren Aditi Mangaldas koreografoa eta Dadi Pudumjee txotxongilolariarekin; azken biak maila handiko indiar artistak.

Boterea, bizitza eta heriotza

Lan honetan elkarriketak sortzen dira boterea, bizitza eta heriotzaren inguruan. Ikuskizunaren abiapuntua Mahabharata indiar mitologian gerra luzeena izan ze-



'Dre' emanaldian bihar ikusgai izango den uneetako bat. HITZA

naren pasarte batean oinarritzen da.

Sudesh Adhanak azaltzen duenaren arabera, «elkarriketa ireki amaigabe bat sortzea da asmoa, guztion memoria kolektiboan eta irudimenean zerbait sortu edo eragiteko». Adhanak dantza garaikidea jorratzen du airezko zeta ehuna bezalako erremintekin.

Bestalde, Dadi Pudumjee txotxongilolariaren ustez, «guztiak euren burua islatuta ikusten dire ikuskizun honetako ezaugarrien batean». Pudumjee Ishara Puppet Theatre Trust-en sortzailea izan zen, aitzandaria da txotxongiloe-

kin lan egiteko modu berritzaile batean eta Unesco eta Europar Batasunerako lan egiten du gehiegikeria sexualak jasan dituzten kaleko haurrak laguntzeko proiektu batean.

Topic-en entseguetan

Topic zentroa martxan jarri zutenean helburuetako bat maila handiko txotxongilolariak bertara joateaz. Bada, Topic-en ostatu hartu duen bigarren konpainia da *Dre* antzezlan irudikatuko duena. Azken bi asteak bertan igaro dituzte bai aurrestreinaldirako nahiz Osloko estreinaldirako entseuetan.

» DATUAK

■ **Zer.** *Dre* (Zuhaitza). Txotxongiloak eta dantza garaikidea uztartzen dituen lana.

■ **Non eta noiz.** Topic Txotxongiloen Nazioarteko Zentroan, bihar, 20:00etan.

■ **Sarreak.** Gaztetxoenzat 4 euro eta helduentzat 7 euro.

■ **Egileak.** Damini House of Culture norvegiar taldea eta Sudesh Adhana norvegiar koreografoa eta dantzariak elkarlanean egindako ikuskizuna.

■ **Lana.** Gerra da gaia, eta bizitza, botereaz eta heriotzaz ari dira.

'Izarren argia' filmaren aurrestreinaldia etzi, Leidorren

Zinema » 19:30ean izango da, eta bertan izango dira Eduardo Barinaga ekoizlea eta Eric Probanza aktore tolosarra, besteak beste.

ERREDAKZIOA

Aurrestreinaldi eta guzti datorriko asteburua zinemari dagokionez, izan ere, zinemetan ikusgai jarri aurretik Leidor aretoan ikusteko aukera izango da etzi, Mikel

Rueda zuzendariaren *Izarren Argia* filma. 19:30ean emango dute pelikula, jatorrizko bertsioan, hau da, euskaraz eta gaztelaniazko azpituluekin. Eduardo Barinaga filmaren ekoizlea eta Eric Probanza filman parte hartu duen aktore tolosarra izango dira aurrestreinaldian.

Asteburuko beste filmak

Bestalde, beste hiru film ere emango dituzte asteburu honetan, Leidor aretoan: *The Karate Kid* gaztetxoenzako filma emango dute bihar 19:30ean eta asteartean 17:00etan; *Conoceras al hombre de tus sueños*, bihar 22:30ean, astelehenean (ikuslearen eguna) 20:30ean eta asteartean 19:30ean; *Cher ami* gaztetxoei zuzenduriko filma emango dute igandean, 17:00etan.

Piperrak erretzen izango da Antton Arroniz azokan

Gizartea » Pasa den larunbatean hasi zen, eta hilabete eta erdiz izango da Berdura plazan; lau barietate izango ditu.

Ondorengo barietateak ekarriko ditu: Lodosako pikilloa, Menda-biako piko, Piper naiararra eta bola edo pipermorra.

Aukera polita izango dute herri-tarrek, beste behin ere, kalitatezko produktu berri hau merkatuan erosteko.

ERREDAKZIOA

Inguruko jende askok ohitura handia du Errioxa aldera joan eta bertatik piperrak erreta ekartzeko. Horregatik, eta pasa den urteko berrikuntzari jarraipena eman eta «Tolosako merkatua indartu asmoz», Antton Arroniz izango da Berdura plazako merkatuan piperrak erretzen ondoren salgai jartzeko.

Pasa den larunbatean hasi zen Arroniz Tolosako azokan, eta hilabete eta erdiz, larunbatero izango da Berdura plazako merkatuan.



Antton Arroniz, iaz. R. CALVO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

E Elkarrizketa

IÑAKI TOLEDO ▶ Peña Blaugrana Tolosarrako presidentea

«Mundu guztiko 800 barçazale etorriko dira gaur Zerkausian afaltzera»

Tolosa » Mundu guztitik etorritako Barcelona FC taldeko 800 jarraitzaile inguru elkartuko dira gaur iluntzean Zerkausian. Arratsaldean herria ezagutuko dute.

ASIER IMAZ

Barçako peñen Munduko Kongresua Donostian ospatuko da asteburu honetan. Harrera afaria gaur egingo dute Tolosan. Udaletxeak, Tolosa Gourmet eta Peña Blaugrana Tolosarrako kideak arduratuko dira Zerkausiko ekitaldiaz, baina Iñaki Toledo (Tolosa, 1978), Peña Blaugrana Tolosarrako presidentea, ospakizunetarako gogo gutxiarekin aurkitzen da.

Gaur ospakizun handia izango da Tolosan, nola bizitzen ari zarete?

Peña Blaugrana Donostia ari da antolatzen hori, baina esan liteke bi trobada (kongresua) egingo direla. Bat gaurko afaria eta beste larunbatetik iganderakoa.

Bigarren Trobada gaurko afaria izango da.

Donostiakoek hasieran afaria Astigarragan egin nahi zuten. Baina gaur mundu guztiko jendea etorriko da; Argentinatik, Suediatik, Poloniatik, Alemaniatik..., guztira 800 pertsona. Ondorioz, ez zuten

Astigarragan horrenbeste jenderentzat lekurik aurkitu eta Tolosan egingo da afaria.

Gaurko eguna, egun polita izango da, ezta?

Berez horrela izan beharko luke baina horrenbeste gauza txar pasa dira... Donostiakoak beti izan dira bereziak eta Euskadiko peñekin ez dute ezertarako kontatu: eurek egin nahi izan dute dena. Gurekin ez dute ezer jakin nahi izan eta hasiera batean Trobadara ez joatea erabaki genuen. Horren zergatiak azalduz, karta bat idatzi nuen. Gure bazkideen artean banatzeaz gain, Barçara eta Euskadiko Peñen Federazioa bidali genuen, Beti Barçara. Donostiako peñaren ordezkariari ere, Santiri, bidali nion. Aste horretan bertan Barçako bi ordezkari etorri ziren gurekin premiazko bilera bat egitera: Joan Camps, Peñen departamenduko arduraduna, eta Sonia Domenech, laguntzailea. Hemengo peña bat izanda, Trobadan egon behar genuela esan ziguten, anfitrioi gisa. Peñako sei kide batzartu ginen euren eta ondoren, gure artean, bozketa egin genuen. Azkenean, afarian presente egotea erabaki genuen. Baina larunbatean eta igandean ez gara Donostian egongo, Euskadiko Peñen Federazioan dauden peñak egongo ez diren bezala.

Anfitrioi bezala zer egin beharko duzue gaur?

Afaria 21:30ean hasiko da. Autobusak 19:30ak inguruan iritsiko dira eta gu denbora hori betetzen saiatuko gara. Iristen direnean, denak bildu eta Tolosa erakutsiko diegu. Ondoren poteoa egingo dugu Alde Zaharrean barrera. Baina argi esan nahi dut, egun horretan egotearen arrazoia bakarria Barça dela.

Donostiakoek eskatu beharrean, laguntza Barçak eskatu duzue beraz.

Bai, horrela da. Udaletxearekin batera hor egongo gara baina Barçakoengatik. Beti Barça osatzen duten peñek ere berdin egingo dute. Biharko afariarekin guri laguntzera etorriko dira, baina larunbatean eta igandean ez dira Donostian egongo. Gorka delegatua bakarrik joango da, denon ordezkari gisara. **Afariatz behintzat gozatuko duzue.**

Lan egin ondoren, gero denak Tolosako Elkarrekin batetara joango gara afaltzera, ez gara Zerkausian geldituko. Hiru ordezkari bakarrik joango dira afaltzera, baina gure peñako bazkideak eta Euskadiko peñetako kideak Elkarrekin afaltzeko dugu.

Dirudienez asteburuak zuretzat, tristetik gehiago edukiko du?

Nik nahi dudana bakarra gaurko eguna pasatzea da.



ASIER IMAZ

Tolosarentzat behintzat, Trobada hau garrantzitsua izango da, ezta?

Oso inportantea. Mundu mailako

ekitaldi bat da barçazaleentzat. Trobada peñen festa bat da eta Tolosarentzat oso gauza garrantzitsua dela uste dut.

Gaur jakingo da Ibarluzearen inguruko epaia

Ibarra » Euroagindua onartzen duen edo ez erabaki beharko du epaileak, Espainiaratua izango den edo ez argitzeko.

A. IMAZ

Garikoitz Ibarluzearen abokatuaren esanetan «epaileak jarrera ona» erakutsi zuen herenegun. Hala eta guztiz ere, «edozer gauza gerta daitekeenez, tentuz ibili beharra dago». Ibartarraren aurkako euroaginduaren onartuko duten alaez, gaur jakingo da.

Ibartarraren sendia «nekatu antzean» aurkitzen da; «tentsio honekin zazpi hilabete daramatzagu eta ez da erraza. Epaiketaren zain egon ginen, fidantzapean aske utziko zutela esan zuten eta gero ezetz, berriro espetxera, berriro



Ibarran Gari Ibarluzearen aldeko elkarretaratzak burutu dituzte. A. IMAZ

beste epaiketa baten zain... eta dena Londresen. Luze doa».

Gaur jakingo da erantzuna

Garikoitz Ibarluzea ibartarra herenegun igarotzen berriro ere Londresko epaile baten aurretik. Abokatuaren esanetan, «argumentu legalak buruzko eztabaida izan zen orainoa, aurreko epaiketan aurkeztu baikeituen gure defentsarako argumentuak». Orduan epaiketa, ibartarra fidantzapean aske utztea erabaki zuen. Ondoren or-

dea, fiskaltzaren helegitea etorri zen eta Ibarluzeak espetxean jarraitu behar izan zuen.

Abokatuaren esanetan, «epailearekin euroaginduaz eta giza eskubideez hitz egiten aritu ginen. Jarrera ona azaldu zuen eta fiskal-

de, fiskaltzaren helegitea etorri zen eta Ibarluzeak espetxean jarraitu behar izan zuen.

Abokatuaren esanetan, «epailearekin euroaginduaz eta giza eskubideez hitz egiten aritu ginen. Jarrera ona azaldu zuen eta fiskal-

tzari aurpegi txarrez begiratzera ere iritsi zen epailea». Zein txikiak bere esanahia izan dezakeen arren, «tentuz ibili beharra dago oraindik» azaldu zuen.

Euskal iheslariaren abokatu Garikoitz Ibarluzearekin egon zen ondoren: «Ondo ikusi nuen, indartsu. Ikasten eta tailerren pasatzen du denbora. Berari ere azaldu nion gaur jakingo genuela erabakiaren berri, 10:00etan edo 14:00etan». Euskal Herrian 11:00etan edo 15:00etan izango da, ordu aldaketa medio.

Behin epaia jakinda, bi aldeek helegitea jartzeko azken aukera izango dute, Ingalaterrako epaitegi gorenean. Fiskaltzaren kasuan ordea, «zaila izango da, hirugarren ezezkioa jasotzeko arriskuan egongo bailitzake. Gariren kasuan, berak erabakiko beharko du zer egin» azaldu du abokatuak.

Teodoro Hernandorena IX. Ipuin lehiaketa prest dago

Zizurkil » Sei urtetik gorako guztiek parte hartzeko aukera dute. Gaia librea da eta euskaraz idatzi beharko da.

ERREDAKZIOA

Beste urte bezela, Teodoro Hernandorena IX. Ipuin Lehiaketa abian da. Zizurkilgo Udaleko Euskara Sailak, Andoain, Aduna, Alkiza, Asteasu, Amasa-Villabona, Anoeta, Irura, Larraul eta Zizurkilgo jendearen artean idazteko zaletasuna sustatu nahi du lehiaketa honekin. Lehiaketan parte hartzeko aukera herri horietako herritarrek bakarrik izango dute. Eta lanak aurkezteko azken eguna azaroaren 18 izango da.

Bete beharreko baldintzak

Gaia librea da eta erabili beharreko hizkuntza euskara izango da. Aurkezten diren lanek egile bakarra izan beharko dute eta partaide bakoitzak gehienez ere bi lan aurkezteko aukera izango du. Lan bakoitzaren hiru kopia aurkeztu beharko dira, azaroaren 20ko 14:00ak baino lehen. Zizurkilgo udaletxean edota Udal Bulegoetan aurkeztu beharko dira.

Aurkezten diren lanak, bost mailatan banatuko dituzte: 6-8 urte artekoak, 9-11 urte artekoak, 12-13 urtekoenak, 14-16 urteetakoak eta azkenik 17 urtetik gorakoak izango dira. Eta maila horien arabera, lanen luzerak zehaztu dituzte: lehenengoak, orrialde bateko



lazio lehiaketako saridunak. E. MAIZ

lanak eta bigarrenak, bi orrialdeko lanak aurkeztu beharko dituzte. 12-13 urte artekoak, gutxienez bi eta gehienez lau orrialde aurkezteko aukera izango dute. 14 eta 16 urte artekoak, gutxienez lau eta gehienez zortzi orrialde eta azkenik 17 urtetik gorakoak, gutxienez bost eta gehienez hamabi orrialde idatzi beharko dituzte.

Kasu guztietan, ipuinak, DINA4 neurrian aurkeztu beharko dira eta makinaz edo ordenagailuz idatzita egon beharko dute.

Lanak bi gutun-azal ezberdinetan sartu beharko dira. Izenburuaren alboan, egilearen izen goitua eta adina jarri beharko dira. Egilearen nortasuna ezingo da bertan agertu.

Lanekin batera, beste gutun-azal itxi bat aurkeztu beharko da. Bertan, egilearen izen-deiturak, helbidea, telefonoa eta adina azaldu beharko dira. Gutun-azalaren kanpoaldean berriz, lanaren izen-

buru berbera eta egilearen adina idatziko dira soil-soilik.

Sari banaketa abenduaren 17an Atxulondon

Sari banaketa abenduaren 17an egingo dute Atxulondo kultur etxean. Maila guztietako lehen bi postuak sarituko dituzte. Epaimahai aditu batek erabakiko du lan sarituak zeintzuk diren.

Lehenengo eta bigarrenentzat opariak izango dira. Hirugarren mailakoentzat, irabazlearentzat 90 euro eta bigarrenarentzat oparia izango da. 14-16 urtekoen saileran, lehenak 150 euroko saria jasokodu eta bigarrenak oparia. Eta azkenik 17 urtetik gorako kasuan, irabazlearentzat 450 euroko saria eta bigarrenarentzat oparia izango dira.

Lan sarituak Udalaren esku gertatuko dira eta egoki iritziz gero argitaratu egingo ditu.



Bihartik aurrera berriz fimak ikusteko aukera izango da. E. MAIZ

Gurea zineman berriz ere filmak ikusgai

Villabona » Bihartik astelehenera, helduek 'Salt' eta haurrek 'Toy Story 3' filmak ikusteko aukera izango dute.

ERREDAKZIOA

Apiriletik, Gurea zineman ez da filmik ikusi. Baina aste honetatik aurrera, berriz filmak ikusteko aukera izango da. Bihartik aurrera, heldu eta haurrentzako moduko eskaintza izango da.

Helduenak, larunbata, igandea eta astelehenetan eskainiko dira eta sarrera 4,50 euro ordaindu beharko da. Astelehena, ikuslearen eguna izango da eta 3 euro balioko du. Haurrenak, 3 euro ordainduta, larunbat eta igandetan izango dira.

Urriko eskaintza

Asteburu honetan helduentzat, 'Salt' filma eskainiko dute. Larunbatean, bi saio izango dira, bata

19:30ean eta bestea 22:15ean. Igandean, 19:30ean eskainiko dute eta astelehenean, 21:30ean. Haurren kasuan, 'Toy Story 3' filma izango da. Larunbatean, 17:00etan eta igandean, 17:00etan izango da.

Hilaren 16, 17 eta 18an, helduentzat 'Que se mueran los feos' filma eta haurrentzat 'Karate Kid' egongo da. Urriko hirugarren asteburuan, helduentzat 'Lope' eta haurrentzat 'Equipo A'. Eta azken asteburuan helduentzat 'Wal Street' eta haurrentzat 'Campanilla' eskainiko dituzte.

Bonoak erosteko aukera

Aurten, zinea gustuko duenak, haur eta helduentzako bonoak erosteko aukera izango du Gurea zineman. Haurren kasuan, 20 film ikusteko bonoa, 35 euro ordaindu beharko da. Helduek berriz bi aukera izango dituzte: 45 euroren truke, 15 film ikusi ahal izango dituzte eta 70 euroko bonua erosiz gero, 24 film.

Liburua: **25€**
 DVDa: **15€**
 Liburua + DVDa: **30€**

Egin eskaera **urriaren 17a** baino lehen:
 943-30 43 45
 harpidetza@berria.info

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**



Ikasturtea eraikin berria estreinatuz

ADUNA » Adunako Herri Eskolak, ikasturtea eraikin berria estreinatuz hasi du. Iazko ikasturtea obretan pasa ostean, aurten txikien eskola berria dute. Txiki gertatu zitzaizen eskola eta lehengo eskolari, handitze

proiektu batekin zati berria erantsi diote. Gustura daude eskola berriarekin. Adunako haurrek, herrian hezkuntza ziurtatua dute. Aurten, 47 ikasle eta 7 irakasle daude. Aurrerago egingo dute inaugurazioa. E.M.

Landagipuzkoa 32 egitasmoaren baitan diru laguntzak eman dizkio Aldundiak Orendain eta Leabururi

Azpiegiturak »

Orendainen balioizdun eraikina eta Leaburun bi lokalen egokitzapena egingo dute.

ERREDAKZIOA

Diplotatuen Kontseiluak onartu berri ditu, besteak beste, Orendain eta Leaburuko azpiegitura balioizdunak eraikitzeko inbertsioak. Inbertsio horiek Landagipuzkoa 32 programan daude aurreikusita.

Eraikuntza balioizduna egitea aurreikusten du Landagipuzkoa 32 programak Orendainen. Etxebizitza batzuk egin behar dituzte, eta horrekin batera eraikin balioizduna egingo dute ondolan. Eraikin horretan herriko ostalua, haurreskola, hirugarren adinekoentzako lokala, liburutegia, KZ gunea, gazteentzako bilgunea eta ezinduenentzako etxebizitza tutelatuak egingo dituzte.

«Proiektua oso interesgarria suertatzen da eta bizi kalitatearekin lotuta dago», adierazi dute Foru Aldunditik. «Orendain herri oso txikia da eta bere gain ezin ditu horrelako egitasmoak aurrera eramanez, eta zerbitzuak eta ekintzak eskaini behar ditu biztanleriaren bizi kalitatea hobetzeko», gaineratu dute.

Proiektuaren inbertsioa



Leaburuko udaletxean eta kultur etxean egingo dira egokitzapenak. I. GARCIA

761.000 eurokoa da eta Gipuzkoako Foru Aldundiak emango duen diru laguntza 600.000 eurokoa izango da.

Bi lokal eraberrituko dituzte

Leaburun aukeratutako proiektua balioizdun guneen egokitzapena da. Bi lokal izango dira, bat udaletxe azpiko lokala eta bestea Kultur Etxeko lokala. Guztira proiektu horretan 375.000 euro inbertituko dira eta hauetatik 350.000 euro Gipuzkoako Foru Aldundiak jarriko ditu.

Udaletxe azpiko lokala lehen solairuan kokatuta dago, egungo

liburutegiaren azpian, eta bertan herritarrentzako bilgune bat sortu nahi dute. Kultur Etxean eraberritu behar duten lokala ere lehen solairuan dago, eta orain dagoen gela banaketa aldatu nahi dute guztia bat eginez.

Proposatzen diren egokitzapenekin lokal hauei probetxua aterako zaie, herriak izan ditzakeen eskakera desberdinak kontutan hartuta. «Honek herritarren bizi kalitatean edukiko du eragina, zerbitzu gehiago eskaini ahal izango baitira, eta herritarrek ere bilgune bat edukiko dute», zehaztu du Foru Aldundiak.

Adimen espiritualari buruzko ikastaroa emango du Fernandezek

Gizartea » Bihartik hasita hiru egun iraungo ditu eta Baketik-eko zuzendari tolosarrak gidatuko du Arantzazun.

ERREDAKZIOA

Baketik-ek adimen espiritualalantzea helburu duen hiru eguneko ikastaroa eskainiko du hurrengo asteburuan Arantzazun. Jonan Fernandez Baketik zentroko zuzendari tolosarrak emango du ikastaroa. Bihar 09:00etan hasi eta astelehenean bazkariarekin emango zaio amaiera.

Ikastaroaren izenburua *Nork bere buruarengandik ikastea. Hiru egun isiltasunean bizizikasi pedagogian murgiltzeko* da. Izenburua bera «nahiko adierazgarria» dela azaltzen dute Baketik-etik. «Gutako bakoitza irakasle aparta izan daiteke norberaren buruarentzat. Geure zailtasunak, gatazkak, bizibitza gehiago eskaini ahal izango baitira, eta horretarako eta haziaraziko diguten ikasgai onenak dira», gaineratzen dute. Ikastaro horren helburua bakoitzaren eskarmenua aprobetxatzen ikastea dela diote, «bai bizitza pertsonalerako eta baita besteekin bizitzeko ere».

Ikastaroaren metodologiak isiltasuneko tarte zabalak hartzen ditu, «norberak bere buruari entzuteko, norberaren gogamenerako eta egonaldiari probetxua ateratzeko». Bizizikasi pedagogiaren funtsezko tresna didaktikoa isil-

tsuna dela azaltzen dute zentrotik. «Ezinbestekoa da geure buruari entzutea, geure burua ulertu eta geure buruarengandik ikasi ahal izateko».

Ikastaroaren matrikula 60 eurokoa da eta ostatua (gastu guztiak barne) 85 euro izango dira. Izena emateko 943-25 10 05 telefonora deitu, info@baketik.org helbide elektronikora mezu bat bidali edota www.baketik.org web gunean sartu daiteke.

Adimen espiritualari buruzko bi ohar

Ikastaro guztiak adimen espiritualal bultzatza bideratuak daudela diote Baketik-etik. Ikastaro horretan, baina, «zehazki modu esplizituagoan eta berezian egiten du alderdi horretan indarra». Adimen espiritualaz hitz egiterakoan bi ohar egitea komeni dela azaltzen dute. Alde batetik, gizakiaren alderdi erlijiosoa eta espiritualal ezin direla nahastu diote. Alderdi erlijiosoa pertsona bakoitzaren aurrealdealderdi espiritualal, aldiz, pertsona guztien berezko ezaugarria dela zehazten dute. «Adimen espiritualal suspertzea funtsezkoa da hobeto bizitzeko eta elkarrekin hobeto bizitzeko», diote.

Bestalde, adimen espiritualaren ikuspegiak ez du bat egiten erabat adimen emozionalarekin. Besteak beste, adimen espiritualal gizakiaren ondoez nagusiak emozioen gestio txarrarekin ez ezik, estutasun existentzialarekin ere harremanetan daudela uste du.

Txintxarri Eguneko bazkarirako txartelak salgai jarri dituzte

Alegia » Hilaren 24ean izango da Txintxarri Eguna eta bazkarirako txartelak erosteko epea hilaren 18an amaituko da.

ERREDAKZIOA

Alegiako Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzek Txintxarri Eguna egingo dute urtero bezala. Azken urteetan udazkenean egiten dute eta aurtengoa hilaren 24an izango da. Aurten Txintxarri Eguna egiten den 13. urtea da eta hori izango da Txintxarri abesbatzaren 50. urteurrenaren ospakizun garrantzitsuenak.

Txintxarri Egunean herriko bi koruek kontzertua eskainiko dute elizan. Emanaldi berezia prestatzen ari dira eta ezustekoren bat

edo beste ere egongo da. Horretaz gain, bazkaria ere egingo dute, eta hori dela eta, bazkarira joatera animatzen ditu koruzaleak eta herritarrek Txintxarri Abesbatza Kultur Elkarteak. Aurten bazkaria herriko Kultur Etxean egingo da, areto nagusian 14:30ean. Bazkari-ko txartelak 30 euro balio ditu eta honako toki hauetan salgai daude: Landa okindegian, Letamendia Kafean, Jubilatuen elkarteak, Kurpilen eta Kultur Etxean. Txartela erosteko epea urriaren 18an bukatuko da.

Oso une berezian egingo dute Txintxarri Eguna, joan den irailean 10ean hil baitzen koruaren sortzailea, Joxe Gastesi, korua sortu eta 1991 arte zuzendu zuena. Zalantzarik gabe, Gastesi gogoan izango dute aurtengo Txintxarri Egunean.

Laburrak

25 lagun San Esteban elkarteak bazkarian

TOLOSA » San Esteban elkartearen urteko bazkaria egin berri dute eta bertan 25 lagun inguru elkartu ziren. Elkartetik bi bazkideren lana eskertu nahi izan dute: «Zer izango litzateke, Anjel eta Jexux, zuek ez bazinuten San Esteban elkarteak aurrera eginen; segi horrela beste urtebete».

Urteko ekitaldietan parte hartu dutenen afaria

BEDAIO » Artubi elkartearen bilduko dira bihar, 20:30ean, urtearen zehar ekitaldietan parte hartu dutenen artean afaria egiteko. Mondejuak eta ardi gisatua izango dute menuan eta afaria doan izango da. Besteak beste, Bedaioko jaien inguruko hausnarketa egingo dute; hobetu daitekeena, proposamen berriak... Hil honen azken asteburuan berriz, azoka berezia egingo dute. Besteak beste, bertako base-rritarren produktuak izango dira salgai.



Kulturaren Berrikuntza

Kaldu: Mikelena Kulturaren
Lindatze kalea 9 • 20006 DONOSTIA
Tel.: 943 11 28 93
programazioa@gipuzkoa.net
www.gipuzkoa.net/kultura

ERAKUSKETAK



Biziaren gainean, paperaren gainean
Javier Usabiaga

Ganbarak
Irailaren 29tik abenduaren 13ra arte



Udaltzaia Foru Mendea
Kultura eta Bazarreko Departamentua

ORDUTEGIA
abuztuaren 14an hasita:
11:00-14:00 / 16:00-20:00
abuztuaren 15ean eta jarraituenetik
bitartekoa gidatuta: berrikuntza@gipuzkoa.net
Tel. 943 112 756 / 667 346 825



Jende ugari bildu zuen iaz, estreinekoz egin zutenean azoka eta aurtan hau errepikatzea espero dute. HITZA

II. Ganadu, Artisau eta Barazki Azoka izango da etzi

Leaburu-Txarama » Joan den urtekoak lortutako arrakastaren ostean, bigarrena antolatu du Larte Azpiko Kultur Ekintzak.

ESTI EZEIZA

Tolosaldeko herri txikiak base-rritarrek, beraien barretzetako uzta jaso eta larunbatetan Tolosako azokan hauek saltzen ikustera ohitura gaude. Baina, iaz, Leaburu-Txaramako Larte Azpiko Kultur Ekintza taldeak, honi buelta emateko garaia zela erabaki zuen, hau da, kontsumitzaileak, jendea, baserriarregana eramanaraztekoa. Hala, estreinako, Ganadu, Artisau eta Barazki Azoka antolatu zuten, eta orduan izan zuen arrakasta ikusita, berriz antolatzea erabaki dute. Ekimen honekin, omenalditxo bat egin nahi die eta egindako lanarengatik eskerrak eman, herriko baserriar guztiak.

Behiak, zaldiak, astoak, oilarrak, ahateak, barazkiak, fruitak eta garai bateko baserrietako lan tresnak

ikusitako ahal izango dira etzi goizean Leaburu plaza. Denera, bertako baserriarren artean hamazazpi postu jarriko dituzte.

Azokako postuez gain, trikitilariak, zaldi-gurdian paseoak, eta pintxoak ere izango dira. Bestalde, bertara hurbiltzeko asmoa duten guztiak artzai andrez jantzita joateko gonbita luzatzen diete. Izan ere, postuetan lanean ariko direnak ere horrela egongo dira. Elkartekoek eta baserriarrek elkarlanean antolatu dute azoka, hilean behin bilduz joan baitira guztia etzirako prestizateko.

Hasiera batean Larresoroko lagunekin duten anaitzearen bitartez, Iparraldeko produktuei tarte berezi bat emateko asmoa zuten etzikoan, baina, azken orduko arazoan ondorioz, ezin izango dira Iparraldeko produktuak ikusi nahiz erosi.

Bestalde, Herriko Ostataua itxita egon arren, bertaratzen direnak izango dute non edanik eta janik. Elkartean bertan, pintxoak, salda eta edariak jarriko baituzte salgai goiz guztian zehar.

» II. GANADU, ARTISAU ETA BARAZKI AZOKA

Urriak 10, igandea

■ **09:00etatik 14:00etara.** II. Ganadu, Artisau eta Barazki Azoka.

■ **Goizean zehar.** Trikitilariak alaituko dute azokako giroa.

■ **14:30.** Bazkaria. Trikitilari eta bertsolariak, Beñat Iguaran eta Mikel Artolak, alaiturik.

Aurtan estreinako, azoka egunari bazkari batekin emango diote amaiera. Zazpi Bide elkartean izango da hau. Aurreko egunetan eman du izena jendeak, eta 70 lagun inguru elkartuko dira bertan.

Bertako produktuekin osatutako saskiak zozketagai

Etzi goiz guztian zehar saski ezberdinak zozketatuko dituzte. Hauek, Leaburu-Txaramako baserriarrek eskainitako produktuekin osatuko dituzte. Goizean zehar txartelak salgai egongo dira, eta saltzen diren heinean, zozketak egiten joango dira. Denera, bost sorta banatuko dituzte.

Gaur hasiko da Argazki Rallya

Berastegi » Argazki kamerak eskuan hartuta, 20:00etan agertu beharko dute parte-hartzaileek herriko plazara.

ERREDAKZIOA

Urte guztian zehar, etxean, armairuan gordeta egon diren argazki kamerak atera, hautsak kendu eta herria argazkitan islatzeko garaia iritsi da. Gaur hasiko baita, zortzigarrenez Kultur Batzordeak antolatu duen Berastegiko Argazki Rallya.

Iaz bezala, Rallyaren baitan, bi txapelketa ezberdin egingo dira. Bata, argazki kamera analogikoa eta bestea kamera digitalena. Baina, hala ere, denek, antolatzaileek proposatutako gaiari atera beharko dizkiote argazkiak. Iaz armairuak izan ziren, eta aurtengoa zein den, gaur 20:00etan jakingo da. Parte-hartzaileek garai horretan agertu beharko dute herriko plazara.

Lehiaketa hasten denetik, parte-hartzaileek bost egun izango dituzte argazki irabazlea edo onena ateratzeko.

Izan ere, erretratuak hilaren 12an, asteartean, 20:00etan aurkeztu beharko dira.

Parte-hartzaileak aukeratu dituzten argazkien artean, epai-mahaiak hoberean aukeratu du eta hau saritua izango da. Irabazlearen izena azaroaren 14an emango da, egun horretan ospatzen den Azoka berezian. Gainera, ateratzen diren argazkiekin erakusketa ere osatuko dute.

Lehiaketako baldintzak

Parte-hartzaile guztiak argazkiak Berastegiko mugetan atera beharko dituzte, eta aldi berean jakingo dute zein den lehiaketako gaia.

Kamera analogikoa erabili nahi dutenei 12 argazki osatutako karretea emango diete. Hala, lehiakide bakoitzak horietatik hiru aukeratu ahal izango ditu. Antolatzaileek, lehiaketa amaitzean, hau da, urriaren 12an, esango diete hauei, zein egun eta ordutan egin dezaketen hori.

Kamera digitalarekin parte hartuko dutenei berriz, CD bat banatuko diete eta 15 argazki sartu beharko dituzte bertan. Hala ere, lehiaketarako horietako hiru bakarrik erabiliko dituzte.



Iaz armairuak atera behar izan zizkieten argazkiak. HITZA

H Hilberria

PEDRO MUJICA TOLOSA

Atzo hil zen, 62 urterekin. Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Goian bego-

Hainbeste maite genuen osaba joan zaigu ondotik baina zure erakutsiak eta irrifarra bihotzean izango ditugu beti.

Ilobak: Asier eta Lierni, Ainhoa eta Unai; Iloba-biloba: Uxue

Haren animaren alde otituz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitzela GAUR OSTIRALA, arratsaldeko SEIETAN, SAN MARTIN parroki elizan gorpua aurrean dela egingo den hiletara. Eskerrik asko guztioi alde aurretik.

Helbidea: Jauregi baserrira
Oharra: Gorpua Beasaingo Goierrri Beilatokian egongo da.



ARAMA
2010eko urriaren 8a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan **DOAN** agertuko da

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldecohitzza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA

www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Tolosa.** Zeinu hizkuntza ikastaroa eskainiko dute Inmakulada ikastetxean urriaren 18tik abenduaren 22ra, astelehen eta asteazkenetan, 18:00etatik 20:30era. 40 orduko iraupena du. Informazio gehiago 943 67 36 29 zenbakian.
■ **Villabona.** Urriaren 17rako Villabona-Alkiza-Asteasu mendiri irteera antolatuta du Aizkardi elkarteak. Izen-emaitea, elkartearen ostegunetan 20:00etatik 22:00etara edo 649 717182 zenbakian.

Erakusketak

■ **Tolosa.** Inestable Gko Galeriararen eskutik ikusgai, Aranburu Jauregian.
■ **Tolosa.** Ertza erakusketak Gko Galerian ikusgai.
■ **Tolosa.** 2011ko egutegiko Argazki Lehiaketan parte hartu dutenen erakusketak Aranburu jauregian.

Jaiak

■ **Tolosa.** Berazubi auzoko jaiak: 18:30ean txupinazoa, bertso poteoa eta bertso afaria, Switch, Yucatan eta Peachy Joken kontzertuak eta ElektroNuclearFusioSesioa Puntzakarekin.

Musika

■ **Tolosa.** Golden Apple Quartet taldearen *Los Golden en blanco y negro* emanaldia 20:30ean, Leidorren.
■ **Tolosa.** Natural Project eta Lau-ropa taldeen kontzertua, Bonberean 22:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte, C.I. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Titirijai jaialdiak sortu zuen 'Iberiar Txotxongilora leihoa' erakusketak jarri dute ikusgai Seulen; Migel Arretxe eta Idoia Otegi inaugurazio ekitaldian izan dira bertako ordezkariak.

Titirijaik sorturiko lana Seulen


ERREDAKZIOA

Tolosako Ekinbide Etxeak (TEE-CIT), Kanpo Ekin-tza Kulturaletarako Estatu Elkarteak (SEACEX) eta Performing Arts Museum of the National Theater of Korea aste honetan inauguratu dute Seulen *Txotxongiloen mundua Espainian eta Korean* izeneko erakusketa. Urtarrilaren 9ra arte izango dute bertan ikusgai, eta besteak beste, Titirijai Tolosako Txotxongiloen Nazioarteko jaialdiak sortu zuen *Iberiar Txotxongilora leihoa* erakusketaz gozatu ahaliko dute. Horretarako, Topic Txotxongiloen Nazioarteko Zentroan dauden txotxongilo-akbaliatu dituzte.

Erakusketa horretan, XVIII. mendetik gaur egunera arte, Iberiar Penintsulan txotxongiloak izan duten bilakaera ezagutu daiteke. Hala, tradizio eta historia luzeko txotxongiloak ikus daitezke, erlijioarekin zerikusia dutenak, esaterako, Kixote eta Santxo Panza bezalako literatur pertsonaiak edota gaur eguneko ideiekin loturiko txotxongiloak. Horiek guztiak, Iberiar Penintsulako zonalde desberdinetakoak dira, tokian tokiko ezaugarriekin.

Inaugurazioan Arretxe eta Otegi

Iragan asteartean inauguratu zuten Seuleko erakusketa, eta bertan izan ziren hiru elkarteetako ordezkariak. Tolosako Ekinbide Etxeari dagokionez, Migel Arretxe eta Idoia Otegi zuzendariak hartu zuten parte ekitaldian. Beraz, beste-ten lana bertatik bertara ezagutu eta eurena azaltzeko aukera izan zuten.



Goian, Migel Arretxe eta Idoia Otegi, erakusketaren inaugurazioan, Seulen. Behean, erakusketaren zati bat. HITZA



bi sarrera pare

Los Golden en Blanco y Negro antzezlenerako

Urriak 8 • Ostirala • 20:30ean
Tolosako Leidor Antzokian

Mikel Izagirre Gorostegi (Tolosa) Nekane Jauregi Jauregi (Tolosa)

Sarrerak leihatilan harpidedun txartelarekin

sarrera pare bat

LAGUN ARO GBC CAJASOL

saskibaloit partidarako
Urriak 10 • Igandea • 18:00etan Ilunben

Milagros Lopetegi San Sebastian (Ibarra)

Sarrerak eskuratzeko, pasa ostiral eguerdia baino lehen HITZAREN Tolosako bulegotik.



SARIDUNAK

